



Artikutzako ttantak



Telefona: 690 720 264
(Asteleneetik ostiralera, 10:00 - 16: 00)
www.donostia-artikutza.org
arikutzanatura@donostia.org


2

Zenbakia
2011ko Udazkena - negua



a

urkibidea



ELKARRIZKETA
Antton Mendizabal eta Juanjo Olaizola.....4

HARITIK TIRA
2011, Basoen Nazioarteko urtea.....8

ARTIKUTZA IRUDITAN
Erroiarriko balkoitik.....10

BILDUMARAKO
Rosalia alpina.....12

BARRU-BARRUTIK
Artikutzan ikus- entzundakoak.....13

ARGAZKI GALERIA



Elkarrizketa

*Antton Mendizabal eta Juanjo Olaizola.
Artikutzako ferrokarrila*

Gaur egun Artikutzako barrutia eremu natural babestu bezala ezagutzen dugun arren, duela mende bat inguru bertako errealitatea guztiz ezberdina zen, industria puri purian zegoen; Artikutzako meategien eta basoen ustiaketak zuen lehentasuna. Orduan ateratako gaien garraiorako beharrezko azpiegitura interesgarrien arrastoak topa ditzakegu oraindik bertan.

Horiek ikertzen dabilza gure elkarrizketatuak, pasa den apirilean eskainitako bi bisita gidatuetan aditzera eman ziguten bezala. Artikutzako lurretan martxan izan zen tren txikiaren hastapenak 1894. urtean koka baditzakegu, 1918an izan zuen bukaera, Donostiak barrutia erosi zuenean. Garai desberdinak ezagutu zituen garraio bide honek 1905. urtean Lezo -Erreterria eta Artikutzako aldeak lotu zituen 28,5 km-ko ibilbidea osatuz eta 60 cm-ko errail artea izanik, itxuraz estatu mailan izan zen baso-meategi ferrokarril estu luzeena.

Zerk bultzatu zintuzten Artikutzako trenaren inguruko ikerketa egitera?

Oiartzungo eta Artikutzako mendietan ikusten genituen eraikuntza-arrastoei sortzen zituzten galderak eta sortzen zuten harridura; ferrokarril honen ezohizko ezaugarriak; ferrokarrila antolatze arrazoiak; erabilitako teknikak eta material ferrobiarioa; informazio eskasiak...



Makinetxeko hondakinak Planoburuan

Egiten ari zareten ikerketan dokumentazioa eskasa edo bilatzen zaila bada ere, zein izan da aurkikuntza interesgarriena?

Esan dezakegu hasieran gaudela. Talde zabal bat gara. Nahi duenak hartzen du parte eta handik eta hemendik ari dira gauza batzuk ateratzen. Aurretik ere ikerketaren bat egina zegoen baino galdera asko dago argitu gabe eta puzzlea oso konplikatu da oraindik. Zailtasun handiena, gaur egun eta oraindik orain, azterketa teknikoak eta proiektuak aurkitu ez izana da. Tren hura ezagutu zuen testigu bakarra dugu; Juan Aranburu oiartzuarra. 103

urte ditu. Asko ari zaigu laguntzen eta horri esker, lehen eskuko informazio aparta ari gara lortzen. Ez dakigu aurkikuntza berezirik egin dugun. Gure gaurko lana gehiago lehendik ezagutzen zena interpretatzea da. Dena dela, zerbait aipatzekotan, Oronozko zubitik Eskasera igotzen zen idiak tiratutako bagoien trazatua definitzea eta garbitzea izan daiteke.

Artikutzako ferrokarrilaren zein ezaugarri azpimarratuko zenukete?

Bere luzera (28,5 km. Penintsulako mina-trenik luzeena); gainditu beharreko desnibel handiak (10m – 675m); erabilitako teknika aurreratuak (plano inklinatu hidraulikoa Artikutzan, bi plano inklinatu arruntak Oiartzungo aldean...); sistemaren konplexutasuna (lau lokomotora, telefonoak...); gelditzen diren arrastoak erakusten duten eraikuntza-kalitate maila (tunelak, zubiak, plataformak, luizi euskarriak...; erabilera anitza (denetarik eramaten zuen, bai pertsonak ere...)...

Artikutzako ferrokarrilaren sorrerak helburu ekonomikoa izango zuen batik bat, baina errentagarria izan al zen noizbait? Desagerpena honekin lotuta egon al daiteke, edo bestelako arrazoirik egon daiteke?

Ekonomikoki, garrantzi handia izan zuen. Artikutzan zeuden material eta gai ezberdinak zulo hartatik atera eta Norteko ferrokarrileraino eramaten zituen. Egia da oso garraio bide garestia zela, baina beste edozein garraio mota (mandoenak, gurdienak...) askoz ere garestiago izango litzateke oraindik. Bere desagerpena funtsean, Artikutzako ustiapenaren porrotean dagoela uste dugu. Eremuak izan zituen jabe desberdin haiek denak pentsatzen zuten Artikutzan izugarriko aberastasunak



Langileak trenaren bagoneta batean 1903 urte inguruan

zeudela, eta guztiz aberastuko zirela, baina oker zeuden. Esplotazio horiek aurrera ateratzeko derrigorrezkoa zen tren. Donostiak erosi zuenean Artikutza, beste helburu batekin erosi zuen, ur garbiaren horniketa ziurtatzeko helburuarekin alegia. Zer pintatzen zuten hango industria-instalazioak eta trenak berak helburu horren arabera? Donostiaren asmoekin talka egiten zuten eta hor dago trenaren desagerpenaren arrazoi nagusia.

Zein bide egiten zuen?

Hasieran (1894), Raimunda Carriquiriren garaian, uste dugu Elamatik Artikutzara eta Urgurutzaera zabaltzen zela tren, 0,50 cm zabalerako karrilekin eta idiekin soilik. Gero, Cinto eta Loubièrek erosi zutenean Artikutza (1896), karrilak aldatu (0,60 cm zabalera), lokomotora bat erabili eta lehengo trazatuaz gainera, Eskaserainoko idiak tiratutako sigi-saga egin ote zutelakoan gaude.

Artikutzako zulotik gora igotzea izango zen zailena. Azalduko diguzue zein sistema erabil ohi zuten?

Artikutzatik ateratako minerala eta basoko etekinak garraiatzeko, Añarbe eta Oiartzun ibaien arteko ur banalero nabarmena gainditu beharra zegoen. Bagonetak pasatu ahal izateko, lehenengoz Artikutzatik sigi-saga igotzen zen trenbide luze bat eraiki zuten idiek tiratutako bagoiak igo ahal izateko. Sistema hau luzea eta motela izaki, horren orde 1905ean plano inklinatu paregabea eraiki zen, funikular baten antzekoa. Orokorrean materiala igotzea zenez helburua, igo behar ziren bagonetak, jaisten zirenak baino gehiago pisatzen zuten, beraz goiko estazioan (Planoburuan), ur-andela mugikorrek ziren, bagoi-plataformak

urez betetzen ziren, eta haien gainean jaisten ziren bagoneta hutsak. Era honetan, kargaren grabitatez soilik, bestelako energia gasturik gabe, bagoneta beteak igo ahal izaten ziren. Energia naturala eta garbia beraz. Dakigunez, estatu mailan ezagutzen den plano inklinatu hidrauliko bakarra da hau, eta detaile guziarekin egina gainera. Plano honetako gelditzen diren arrastoak gaur egun, nahiko ikusgarriak dira. Aipa dezakegu Portugalen badagoela 1882tik martxan, printzipio berdina erabiltzen duen bidaiariarentzako funikular bat: Bom Jesuseko funikularra, Bragan hain zuzen.


“Artikutza eta Eskas lotzen zituen odolezko trenaren bidea naturak jana zeukan baina garbiketa eta atontze lanak egin ondoren sigi-sagan doan aldapa gutxiko bide honek, izerdirik bota gabe naturaz gozatzeko aukera emango dizu. Planotxo honek erraztuko dizu bidea aurkitzen”.



Zer egin daiteke geratu zaizkigun arrastoekin, tren berreskuratzea erokeria al da?

Amesten jarri ezker, Interpretazio gune bat egitea egokia litzatekeela uste dugu. Bertan Artikutzako aberastasun naturalak, aisialdirakoak, geologikoak, Industrialak, kulturalak, historikoak, sozialak... modu simple baino duin eta erakargarri batean erakutsiko lirateke. Trenaren materialen bildumatxoa, eta tren bera irudikatuko luketen zenbait maketa, diaporama eta bideo-animazioak asko lagunduko lukete interpretazio gune honen erakargarritasuna indartzeko. Interpretazio gune hau antolatzeko, Artikutzako eremuaren sarreran dagoen Eskaseko guarda-etxea, behar bezala berritua, oso egokia ikusten dugu. Hor doa ideia. 2019 urtean beteko dira 100 urte Donostiak Artikutza erosi zuenetik. Aukera ederra horrelako zerbait estreinatzeko.

“Anttonek eta Juanjok hasitako ikerketa aitzaki, Artikutzako trenaren arrastoak garbitu dira eta estalita zeuden elementu asko berriro bistan dauzkagu. Lan honi esker burdinazko piezak aurkitu dira ere: zenbait errail, torloju eta hiltze, esaterako”.



Zein mineral ustiatzen zen Artikutzan, horrez gain, beste zerbaiterako erabiltzen zen tren?

Burdina, kaolina, egur ikatza, posteak, trabesak... garraiatzen zituen trenak Artikutzatik. Bidean, Karrikako harrobitik Ofita ere garraiatzen zuten Diputazioaren errepide lanak osatzeko. Garai oparoenean egunean lau bidai ere egiten omen zituen Lezo-Errenteriaraino. Horretaz aparte, beste zerbitzurik ere egiten zuten tarteka: baserriak konpontzeko materialak garraiatzea, pertsonak..

Ferrokarrilaren proiektuak aurrera jarraitu izan balu, nolakoa izango litzateke, zuen uste-tan, egungo Artikutzaren egoera?

Donostiak finka ur horniketarako garbitzea, basoa berreskuratzea eta eremua asko zaintzea eta aldi berean tren martxan mantentzea nahikoa zaila da ulertzen eta irudikatzen. Trenak ez zuen zentzurik; norentzako? Gainera auto-orugak erraz iristen ziren Artikutzara bide zaharretik, zeresanik ez, errepidea egin zen garaian, kotxeak eta kamioiak... Ezin dugu erraz irudikatu gaur egungo Artikutza eta era berean tren hori martxan mantentzea.


Zein asmo duzue etorkizunari begira Artikutzako ferrokarrilaren inguruan?

Lehenengoz eta behin, ikerketa sakontzea. Horrekin batera, gaur egun dauden arrastoak garbitzea, babestea eta bisitagarri egitea. Tren honen izaera eta historia zabaldu nahi genuke, jendeak ezagutu dezan. Azken finean, gure historia industrial, soziala eta kulturalaren zati bat izan zen, nahiko bitxia eta berezia gainera.



h
aririk tira

"2011, basoen nazioarteko urtea"



2006ko abenduaren 20an Nazio Batuen Batzar Nagusiak 61/193 ebazpena onartu zuen, **2011 Basoen Nazioarteko Urtea izendatuz**. Gobernuak, gobernuz kanpoko erakundeak eta hainbat eragile gonbidatu zituen denon artean baso mota guztiak eta basotik kanpo gelditzen diren zuhaitzak ere modu iraunkorren antolatu, kontserbatu eta garatzeko indarrak batu zituzten. Basoek dituzten balioak (ingurumen alorrekoak, ekonomikoak zein soziokulturalak) ezagutzeko eta kontzientzia gehiago sorrarazteko sustatuko dira ekintzak.

Logotipoan erreparatzen baduzu, argi ikusten da zein den adierazi nahi duen lema: **basoak pertsonentzat**: basoen babesean eta ustiapen iraunkorrean pertsonak betetzen duten funtzio garrantzitsua azpimarratu nahi du. Basoek etxebizitzak egitea ahalbidetzen digute, aniztasun biologikoaren habitata dira, elikagai eta medikamentu iturri, edateko ura, klima eta ingurumena egonkortzeko nahitaezkoak, beraz urrutitik ikustean masa berde bat edota lehor itxurako adarrez osatutako eremu bat ikustez gain ohartu behar dugu, gure bizitzarako eta gure atzetik etorriko direnentzat behar beharrezkoak diren ekosistemak direla.



Basoak dira CO2 isurketak murrizteko bide eraginkorrena.

ZENBAT BASO DUGU?


Artikutzako % 66a, basoek estaltzen dute eta horien artean pagadiak dira gaur egun nagusi %30a-rekin, hariztiak %21 okupatzen dute eta landaketa desberdinek %15a. Estatu mailan basotutako bataz besteko baso-azalera %36koa da, Nafarroan %44era iristen da eta E.H. an %55 a betetzen du. (Iturria: situación de los bosques y sector forestal en España 2009, congreso forestal español). Baina basoak zeinen esku daude? Jabego pribatua da batik bat Gipuzkoan eta Bizkaian nagusitzen dena, Araban eta Nafarroan aldiz, erabilera publikoko basoak dira gehienak, eta honek badu bere garrantzia kudeaketa egiteko orduan. Irizpide ekonomikoak eta ekologikoak gehiengotan bat ez datozenez zein aukerak aurrera egiten duen kontuan hartzen badugu.

Basoak betidanik ustiari dugu, gizakiak, ehiza, zura, fruituak eta abarren iturri amaiezina zela zirudien arren, populazioa handituz joan den heinean basoko baliabideak agortzen direla ikusi dugu ere. Orain ditugun beharrak asetzeko eta gure atzetik datozenenak ere ziurtatzeko basoak nola kudeatu da erronka nagusia. Helburu horrekin kontzientziak pizten eta neurriak hartzen joateko izendatu zen aurten basoen urte hau.



ZER DAGO ZURE ESKU?

Denon esku dago baso hauek eta edozein ingurune bisitatzen dugunean ahaztu ezin dugun jarrera: zaborrik bertan ez uztea, landaretza eta fauna errespetatzea eta handik ibili garela ez nabari izatea. Argazkiak ateratzea daukazu eta hori izango duzu betirako "souvenir" onena.





Jesús María Rubio

bilduma fitxa

Rosalia alpina (Linnaeus, 1758)

Honako hau Europako intsektu ederrenetariko bat dugu; garai batean oso ohikoa izaten zen Kantaurialdea eta Pirinioetako basoetan hegaz ikustea.

Emeek egur hilaren gainean jartzen dituzte arrautzak: zuhaitz erorietan, adar puskatuetan ... eta larbak enbor hauetan galeriak zulatu eta bertako intsektuak janez elikatzen dira 2 edo 3 urtetan zehar. Aukeran intsektu honek nahiago du pagoaren enborra, baina besterik ezean gaztainondoa bezalako beste espezieak ere baliagarriak zaizkio. Larbak heltzen direnean elika galeriaren alboan kamara antzeko bat eratzen dute eta bertan ninfa moduan urte bete inguru ematen dute. Maiatza bukaera eta abuztua bitartean helduak azaleratu egiten dira eta 2 asteko bizitza edukitzen dutenez denbora horretan izugarritzko aktibitatea izaten dute: bikotea bilatu, ugaltu...



Kolore gris-urdinxka eta orban beltzez osaturik ikusten ari zaren gorputz horrek ahalbidetzen dio hildako pagoen enborretan ia ikusezina izatea. Erreparatu ezazu pago zahar batek duen kolore eta zuloetan eta ulertuko duzu!

Ikusgarriak dira borla belzdun urdin koloreko bi antena luzeak, ia Cerambicido gutzietan bezala gorputza baino luzeagoak, eta arrenak emeenak baino luzeagoak izan ohi dira, 15 eta 38mm arteko luzera izatera irits daitezke!

Azken 20 urteotan *Rosalia alpina*-ren populazioa nabarmenki murriztu da eta honen arrazoiatariko bat egur hilaren murrizteka izan daiteke. Zortea izanez gero Artikutzan ikus dezakezun espeziatariko bat da, hemen intsektu honen bizitza bermatzen duen aipatutako enbor hil ugari baitago. Europa mailan garrantzia Komunitarioko espezie bezala katalogatua dago.

Argazkia: Peter Krimbacher



arru barrutik

Ikus eta entzun ditugu...

2011 / 02 / 24

Neguko hilabeteetan zehar deigarria izan zen Artikutzako basoak etzaleku bezala hartu zituzten txontak (*Fringilla montifringilla*) ikus eta entzutea. Goiz partean ekialderantz abiatzen ziren, Bertiz aldera eta arratsalde partean mendebalderantz, Artikutza eta Biantitz arteko pagadietara bazkatu eta pinuetan gaua pasatzera. Adituek zioten milioi eta erdi txoriz inguruko bandoa osatzen zutela, baina etorri bezala udaberria heltzerako Europako iparralderantz abiatu zen. Ez da ohikoa hemendik horren bando handiak ikustea, baina pagadietara hurbiltzen dira janari bila eta hemen gustukoa aurkitu zuten nonbait.



2011 / 03 / 22

Kukua entzun genuen lehen aldiz eta orduan hasi ziren ere alertzeak hostoak botatzen. Apirileko lehenengo asterako hasi ziren aldiz, pagoak eta haritzak bereak pixkanaka zabaltzen.



2011 / 04 / 3 eta 17an

Bisita gidatu bereziak

Antton Mendizabal eta Juanjo Olaizola izan genituen Artikutzako trenari buruz egin dituzten aurkikuntzak aditzera ematen eta idiek kargekin egiten zuten berreskuratutako bidean zehar ibili ginen Artikutzatik Eskas aldera.



2011 / 07 / 3 eta 17an

Pako Zufiaurrek erakutsi zigun kaskabeltz, eta hantzeko txorientzat kabi kutxak modu errazean egiten. Txori batzuen kantak "ikasi" ondoren habiak jartzen genituenean, identifikatzen saiatu ginen ..., praktika behar da!



2011 / 09 / 24

2011 / 07 / 12

Beste bisitari batzuk

Artikutzatik pasa zen, bertan lo eginenez, Nafarroako Anaitasuna mendi taldeak antolatutako XXIV. Transpirenaica mendi zeharkaldia egiten ari den 10 pertsonako taldea. Udara guztietan antolatu ohi duten ibilbidea, Hondarribian hasi zuten eta bigarren etapak ekarri zituen Pikoketatik Artikutzara. Hemen-dik Elizondo aldera abiatu zen 7 astetan zehar gauzatuko duten Pirinioak zeharkatzeko abentura hau.

Aurten ere roll ski-ko lasterketa izango da Artikutzan. 2006an hasi zen ospatzen udazkeneko CVC eko iraupen ski-ko taldeak antolatuta, Artikutzako auzotik maldan gora 5 bat kilometroko lasterketa arrakastatsua. Arratsaldeko lauetan hasi eta 5ak aldera elkartuko ditu herrian berriz parte hartzaile, antolatzaile eta lagunak.



EZ ahaztu...!!

Ez ahaztu gure web orria bisitatzen:

www.donostia-artikutza.org, irailetik aurrera han izango duzu azarora arte prestatu ditugun ibilaldien berri.

Informazio gehiago nahi baduzu eska dezakezu:

■ artikutzanatura@donostia.org helbidean

■ edo telefono honetan **690 720 264** asteleheneetik ostirale-
ra 10:00etatik-16:00etara.




argazki galeria

Artikutzan atera duzun argazki polit edo bitxi bat hemen argitaratua ikusi nahi baduzu, bidali helbide honetara: artikutzanatura@donostia.org. Argazkiarekin batera zure izen-abizenak, ateratako lekuaren izena, data eta argazkiaren izenburua jar itzazu.



Izenburua: Basurdekumeak siesta egiten
Tokia: Erroiarriko kanal Bi basurdekumeek argazki-kameraren kika entzun zutenean esnatu eta azkar ihes egin zuten.
Egilea: Antton Gamio



Izenburua: Apo arrunt (*Bufo bufo*)
Tokia: Artikutza auzoa
Egilea: Iñaki Uranga



Izenburua: Haginaren fruitua (*Taxus baccata*)
Tokia: Pagolleta
Egilea: Margi Iturriza



Izenburua: Olagarroak Artikutzan?
Tokia: Elizmendi bidezidorraren pagadia
Egilea: Eva Ayestaran

Artikutzako Ttanttak buletina jaso nahi baduzu bidali zure datuak (Izen abizenak, helbide elektronikoa) artikutzanatura@donostia.org helbidera eta posta elektroniko bidez jasoko duzu.

